

XEDAPEN OROKORRAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4764

ERABAKIA, 2011ko uztailaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Basurtuko Ospitalearen, Gurutzetako Ospitalearen, Donostia Ospitalearen eta Arabako Unibertsitate Ospitalearen izenak aldatzen dituen.

Osasun-instalazioak unibertsitate-ikerketa eta -irakaskuntzan erabiltzeko helburuarekin EHuren eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren artean izenpetutako hitzarmena (2008ko azaroaren 24koa, 2009ko urtarrilaren 9ko EHAA) eta EHuren eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren arteko Batzorde Mistoak aurkeztutako proposamena –hamahirugarren klausulan sortutakoa– ikusita.

Kontuan izanda Hitzarmenaren hirugarren klausulak ezartzen duela Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak bermatu egingo duela hitzarmenpeko ospitaleek eta gainerako erakundeek bete egiten dituztela ekainaren 28ko 1558/1936 Errege Dekretuko 4. artikuluko 3. oinarrian ezarritako baldintzak.

Hitzarmenean oinarrituta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak honen ondoren aditzera ematen diren zerbitzu-erakundeak eskaintzen ditu irakaskuntza-, sorospen- eta ikerketa-helburuetarako, eta «Unibertsitate Ospitale» izena har dezakete. Aldez aurretik egiaztatu egin beharko dute bete egiten dituztela beharrezkoak diren baldintzak.

- Basurtu
- Gurutzeta
- Donostia
- Arabako Unibertsitate Ospitalea

Hitzarmen horretako hamalagarren klausulan, proposamena egiten duen batzorde mistoari izendatutako aginpideen artean, honako hau ere jasotzen da: «hitzarmena bete eta aplikatzeaz arduratzea».

Testuinguru horretan, Hitzarmenaren Batzorde mistoak 2011ko otsailaren 4an proposamena egin zuen Basurtuko Ospitalearen, Gurutzetako Ospitalearen, Donostia Ospitalearen eta Arabako Unibertsitate Ospitalearen izenak aldatzeko, kontuan izanda ospitale horiek –hitzarmenaren hirugarren klausulako 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera– bete behar dituzten eginkizun berriak.

Hortaz, proposamena aztertuta eta honen aurretik adierazitakoarekin bat etorritz, Administrazio Kontseilu honek, adierazitakoa betetze aldera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Gizarte Estatutuetako 8.5 artikuluan egotzitako eskumenen arabera (azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuz onartu ziren estatutuak), erabakia hartu du.

ERABAKIA

Lehenengoa.– EHUren eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren arteko batzorde mistoak Osakidetza-zuzendari nagusiaren bidez igorritako aldaketa-proposamena onartzea, non ezartzen baita honen ondoren aditzera ematen diren ospitaleei «Unibertsitate Ospitale» izena itsatsi behar zaiela:

- Basurtuko Ospitalea
- Gurutzetako Ospitalea
- Donostia Ospitalea

Bigarrena.– Honako erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak erabaki honek.

Hirugarrena.– Erabakiaren eta argitalpenaren berri ematea Ogasun Saileko Ondare Zuzendaritzari eta otsailaren 21eko 31/2006 Dekretuz araututako Eusko Jaurlaritzako Zentro, Zerbitzu eta Establezimendu Sanitarioen Erregistroari.

Laugarrena.– Erabaki honen eranskinean ezarritakoarekin bat, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Erakunde Publikoaren zerbitzu-erakundeen zerrenda eguneratu egiten da, eta erabaki honen datatik aurrera izango ditu ondorioak.

ERANSKINA

«OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA» ERAKUNDE PUBLIKOKO ZERBITZU-
ERAKUNDEEN ZERRENDA

Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremua:

- 1.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
- 2.– Emergentziak (Emergentzietako Lurralde Unitateak).
- 3.– Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa.
- 4.– Osatek SA.

Arabako Osasun Barrutiko Lurralde Eremua:

- 1.– Arabako Unibertsitate Ospitalea.
- 2.– Lezako Ospitalea.
- 3.– Arabako Osasun Mentaleko Sarea.
- 4.– Arabako Eskualdea.

Bizkaiko Osasun Barrutiko Lurralde Eremua:

- 1.– Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea.
- 2.– Basurtuko Unibertsitate Ospitalea.
- 3.– Galdakao-Usansolo Ospitalea.
- 4.– San Eloy Ospitalea.
- 5.– Santa Marina Ospitalea.
- 6.– Gorlizko Ospitalea.
- 7.– Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea.
- 8.– Bilbo Eskualdea.
- 9.– Barrualdeko Eskualdea.
- 10.– Uribeke Eskualdea.
- 11.– Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdea.

Gipuzkoako Osasun Barrutiko Lurralde Eremua:

- 1.– Donostia Unibertsitate Ospitalea.
- 2.– Zumarragako Ospitalea.
- 3.– Bidasoako Erakunde Sanitario Integratua.
- 4.– Mendaroko Ospitalea.

5.– Debagoieneko Ospitalea.

6.– Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea.

7.– Gipuzkoa Ekialdeko Eskualdea.

8.– Gipuzkoa Mendebaldeko Eskualdea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 22a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.